

ARAUDI OROKORRA BEHEKOSOLOA KIROLDEGIKO IGERILEKUAK

Instalazioak bi igerileku ditu, bromo desinfekzio sistema dutenak: handi bat, gehienez 104 erabiltzailerentzat, eta txiki bat, 18rentzat; azken hau, 6 urtetik beherakoentzat eta euren arduradunentzat soilik, igeriketan ikastekoa izanik.

Bainu eremura sartzeko gaixotasunen bat dutenen sarrera, bertako arduradunek baldintzako dute, kutsagarriak badira eta horien artean bereziki azaleko gaitzak, gripea, katarroa eta antzekoak. Uraren kalitatea hoberena izan dadin, baita instalazio osoarena ere, denon laguntza ezinbestekoa da.

Bete beharreko araudia

) Debekuak:

- Ez sartu kaleko arropa eta oinetakoak jantzita bainu-eremuan.
- Ez edan, ez jan, ezta txiklerik ere ahoan, bainu-eremuan.
- Ez animaliarik sartu instalazio osoan.
- Ez utzi hondakinik.

) Bainu eremuan sartu aurretik:

- Erabili bakoitzak norberaren txankleta zein ur-galtzerdiak, igerileku eta aldageletan bakarrik erabiltzekoak eta garbiak.
- Dutzatu. Xaboia erabili, arduradunek hala baderitzote, krema, desodorante eta bestelako hondakinak kentzeko.
- Komunera joan, beharizan horiek kontrolatzeko.
- Kendu apositoak (tiritak, esparatrapuak etab.)

) Bainatzean:

- Erabili ile guztia batzen eta estaltzen duen txanoa. Ez kendu uretan.
- Ez jarri toailak lurrian, bertoko kutsagarriak ekiditeko.
- Ez zintz egin edota txisturik bota uretan.
- 6 urtetik gorakoek ez dute igerileku txikia erabiliko, arduradunak ez badira.

Jarraitu beti sorosle edota arduradunaren jarraibideei.